

Iturria: <http://kritikak.armiarma.com/?p=513>

Gorde nazazu lurpean / [Ramon Saizarbitoria](#) / Erein, 2000

Gorde nazazu lurpean Eli Urdangarin / *Maxixatzen*, 2002-04

Idazle ezaguna da oso Ramon Saizarbitoria. Euskal literaturaren historietan ageri da, irakurle leial asko du, unibertsitateko literatura irakasleek haren lana aztertzen dute...

*Egunero pasten delako* (1969) eta *Ehun metro* (1976) dira ziurrenik ikasleek eskolan irakurriena; horien ondorengoak ditu *Ene Jesus* (1982), *Hamaika pauso* (1995), *Bihotz bi* (1996), *Aberriaren alde (eta kontra)* (1999), eta *Gorde nazazu lurpean* (2000). Azken han da orain bereziki aipatzera goazena.

Gorde nazazu lurpean narrazio bilduma da, bere baitan bost ipuin luze edo eleberri labur biltzen dituena: “*Gudari zaharren gerra galdua*”, “*Rossetti-ren obsesioa*”, “*Marcel Martinen aitatasun ukatua (edo, “La femme, elle, sait”)*”, “*Bi bihotz, hilobi bat*” eta “*Asaba zaharren baratza*”. Ez dira elkarrekin lotura estua duten eleberri baten bost atal, baina ezin esan inongo hartu-emanik ez dutenik.

“*Rossetti-ren obsesioa*” eta “*Bi bihotz, hilobi bat*” narrazioek, esate baterako, badute elkarri lotzen dituen zerbait, bikote harremanen gazi-gozoa, alegia; lehenengoan gizona protagonistak behin emakume bat maitemintzeko erabili zuen testu bera erabili nahi du gero beste batekin, eta hain eraginkorra izan zen narrazio hura ezin topatu... eta hortxe komeriak, obsesio bihurtzerainokoak.

Bigarrenak, aldiz, hil berri zaion aitagarrearentzat panteoia lortu nahi eta ezinak protagonistari bere emaztearekin sortzen dizkion gatazkak kontatzen ditu. Bietan du umoreak garrantzia; horretan, gainera, *Bihotz bi* eleberria (1996) dakarte gogora. Bikote harremanetan maiz sortzen diren egoera garrantzak ditu abiapuntu idazleak, irakurleari gertuko eta oso sinesgarri gerta dakizkiokeenak, eta modu erakargarrian adieraziak, ironia eta umorea erabiliz.

Liburua bere osotasunean da erakargarria; hizkuntza zaindua du, eta irakurleari une atsegin asko emango dizkio. Merezi du.